

# SINODOA

Laister dugu Sinodo deritzan batzarra Erroman. Apaizen arazoak aztertuko dituzte an biltzen direnak.

Izan ere ez da berriekta apaizari gertatu zaina! Au bai geditu dela ez zerurako eta ez lurrerako!

Zenbat galdera, zenbat kezka, zenbat zalantza, zenbat aida-keta! Zer da apaiz izatea? Zertarako apaiz? Zer eginkizun du apaizak? Kristau-erriak urrun ala bertan bizi behar du? Edezin kristauek bezaia artu behar al ditu famili, lan eta politikako erantzukizunak?

Zer gertatzen da orrenbeste apaizek beren apaiz biziera utzeko? Zabarkeria? Siniesmen eza? Etsipena? Ala kristau izatea familiko, laneo eta gizarteke lotura guzietan sakon bizi nahia? Elizak daukan buruausterik aundienetakoa: apaiza. Biltzekoa zen, beraz, arazo au bere luze-zabaleroan aztertea eta sakontzea. Orregatik eta ortarako da ain zuzen datorren Sinodoa.

Baia ez zen bidezko gotiki behera gauzak erabakitzea. Apaizen eta eliztar soilen irizirik beharrezkoak ziran. Orregatik jaso behar zituzten elizkarruti bakoitzean gotziaiek beren apaiz eta eliztarren irizirik eta ustek.

Eta egokia zen Errialde bakoitzeko eliz-barrutiak elkartueirik arazo aztertea eta sakontzea an-emengo ordezkariak Sinodoan bildu aurretik.

Egüña dute Españako gotzi eta apaizek ere beren batzarra. Izan dituzte beren garabehera eta etabaidak bidezkoa denez. Ez dezakegu ango berri gehiegi eman, ordea. Ono dotozkuinak bakarrik zabalteko ohitura bai da gure artean. Eta zorituraz gauzak beren lekutik ateratzeko joera beldegarrria.

Eta orixe gertatu ditek batzar onetara berriekin ere. Eta orixe apaizen ezkongabatasuna aipatzearekin eta etabaidatzearekin ere. Ezin uka garrantziko denik. Baia zenbaitek beste arazoak zokoratzeko erabili dezake onok sortu lezakenean aztoramena.

Sakonetik eldu nahi izan diote apaiz arazoari Españako gotzi eta apaizek. Kristau erriaren eta munduaren serbitzuan jarri nahi lituzkete Eliza eta apaizga.

Garbia izan da Erriari egina dioten erregua. «Gehiegi uzartuak egon gerra agitariekin gerra ezkerotik. Zuegandik urrutu. Arren barkatu».

Behartsu izan nahia sortu zaio Elizari. Behartsuen alde jartzeko gogoia.

Ez da bide txarra barkazioa eskatzea. Jarrai dezala bere gogo ori bizitzan mamitzen eta burutzen.

# EUSKAL MITOLOGIA HONDARTZA

Ene zango iletsu eta meharrik ez dute aspaldian eguzkiaren argirik ikusi. Ez dakit zein konplejo ezkutak eargina ez naizen autengoa hondartzara joan. Agian hartatik, hasia naiz hondartzaz pentsatzen, eta zenbaiterainoko jentilak harat doaz jabeturik, hondartzaren sekreto gordearen bila iharduki dut.

Hondartzarako gutizia alderdi askotatik ikuspegi daiteke. Soziologikoa osagileak, sikologikoa eta nazioetako jende prinzipalak ere hondartzak duan garrantziaz jabetu dira. Haritaraino larritu dira gauzak eta hain «egezko» da hondartzara joatea, ze harat ez doazkan konplejo bortitz batez kutsatuak dautza.

Eguno saio honetan hondartzaren bi alderdi berezi aipatuko ditut: sua eta jendetza. Horretarako, eta nolabait ere, hondartzaren fenomenoa fasilitaririk bezala hartzen dut; gisa honetara gauzak argi-gi egoian izan diren pentsatuz.

—1001—

Gorputz beztuak, aurpegi gorrikak, mila gisakoto gorputzak kiskalken, erretzen. Larriek bapainua daria, eguzkiaren bapainua. Hondar oria behean, eguzki bortitza goian,

eta tartean zango, zoin, bular negiak. Hondartzak amets leku da; ameskeriaren toki. Oro da errea eta gutzi au bero. Hondartzak aia-bera bat dirudi, eta han dautza gorputzak eguzkiari eskeiniak. Ofrenda handi bat da hondartzak.

Eguzkia sua da. Eguzkiak beroa ematen du. Berca erantzen du. Eta beroa biziarene seinale da. Erromantikoek bilhotz ihardukitzean bero jotzen zuten bilhotz. Maitasuna ere beroa da. Maitasunaren grüna sua da.

Sukarrak garbitu egiten du. Burua, sukarratzen altzairu trokatzen da. Hondartzako suak «garbitu» egiten du.

Lehen esan dut, hondartzak aldre bat dela; eta orain diot garbitzaile dela. Eta aise nabari daiteke hementen erlijio zentzu bat. Hondartzak erlijio eta kultura bihurtu dugu. Hondartzak ba da ritorik, ba du liturjirik. Hondartzako eraizteko del biluzteak, berek ere, rito bat osatzen dute.

Bizia eta beroaren arteko lotura klara da eta oso maiz aipatua, mendebaleko alkimia eta medizinen historia zehar. Sua eta bizieraren arteko ekuzioa Paracelso-ren sistimaren oinarri eta zubate da. Paracelso-ren baitan suak bizia dute, eta bizia su da. Pentsaera hau oso errota datusagu Erdi Haro eta gerozko gizaldietan. Europako mitologietan sarritan elkarturik aurkitzen ditugu sua eta bizia. Gurekoen mitologian beriz antz aldiz agertzen zaiku sua eta bizieraren arteko lotura (gegora dezagun Prometeo-ren mitoa). Egun eta geure artean asko da eguzkiaren bizitute osasungarrian sinesten duenik. Sarri entzuna dut, eguzkiak azala gonortu egiten duela eta gero neguan hotz itxiegia izaten dela.

Norbaitek farre eginen du, hondartzak «sakramento» toki dela esaten ba dut. Baina hala diot, eta ez zait neri hain farregarik iruditzen. Jakina da olioak erlijioen liturjietan duan garrantzi apartekoa. Dela baita «dela apaizgintza edo dela «Azken igurtzia»an» olioak birtute osagile eta aldatzaile bat du....

Begien bistan datza hondartzako olio eta olioak kremen igurtziak, ekite eta fina konkretuak dituela. Baina ez genezake aiaz Kulturaren historioan zehar «olioak duen simbolismoa eta esanahi gordea. Bestalde, «olioak zenikusi handia du gas-tronomian eta Levi-Strauss-ik jarraituz hemendik ere ikuspegi daiteke ondartzaren mitologia. Baina besteak beste, olio eta sua alkatuzkero, hondartzak erlijio tankera bat hartzen du; eta berez, zentzuna osagile eta aldatzaile bat da. Hondartzara doana, sendatzen da. Eriz aldatzen da. Eta eriz aldatze eta berizte horri politikoa eta sozial deriztat. Esan dugunez hondartzaren beste alderdi nabarmen eta bereiznarria «jendetza» da, eta hemendik datorriko hondartzari bere esangura politikoa.

Jendetza biltzen da hondartzan, Hondartzan hortez gora datzanak, ez du agian aldameneko ezeguzunak hitz eginen, baina ezeguzun eta jenteez estraño hoik lakot zaizkio, bere pasibo egotearren gordailu baiti-

ra. Ondartzan pertsona, multzo trokatzen da. Inor ez da moiera, jendetzak baizik. Bata langile izanen da, merkataria besteak eta beste hura burges. Baina denak nabasturik, beren larru arruntz jantzurik «jendetza» dira, masa bat osatzen dute.

Opor aldiak direla eta hondartzara doan gizon edo emakumea, bere lantokio menpeltasuna ahazturik, jendetza anonimo batetan mugiltzen da. Burgesa eta langilea ez dira nabarmentzen. Ugazaba eta proletaria batera dautza, hondar berdinaren etzanik. Eguzkiaren suak eta hondararen epelak labe bat osatzen dute. Eta burri-otako labean bezala, hondartzan ere, oro berdin trokatzen da, gutzia xehetu, leundu eta nahastu. Beraz, hondartzak klaseen ekuzioa dugu. Ez da hondartzan sozial gisako «mesbercintanik» nabari. Han suma daitezkeen berezunduak biologia edo fisiotogiaren mailakoak dira. Bata argia, besteak itsusi eta liraina burregongoa.

Hondartzan, gorputza da nagusi. Gizartea eta bere desberdintasunak hondartzaren atarian gelditzen dira, jantzi eta poltsen gisara. Hondartzak, gizartearen kontraesentatik at, «gizona», jendetza, zenbait erlijiotan dakusagun «toki sagaratu» antzeko dugu. Hondartzak, eguneroko bizimoldeen ekuzioa dugu.

Beraz, hondartzak geure gizarte aldrebes honen «sakramento» osagiletako bat dugu. Eta sakramento orotan hausnar daitezkean xehetasun bereak aurkitu daitezke hondartzan ere: Garbiketa, sendatzea eta lehenaren ekuzioa. Horra egungo erlijio laikoaren atzartarritak bat.

Hondartzak, modu soil bat dela esateari, oker deriztat. Noski, eta danok dakigu nolatan erromatzen atsoak larri zuria preziatzen zuten, eta etxetik iruzitean, eguzki bolaz, beren aurpegiak ohiak bezala ezaltzen zituzten. Lehen azal zutia, orain beriz beztua. Modak ba du hor zerikusirik, baina moda ez ezik ba da beste zenbait kondizionamendu egungo hondarretarako gutizia argitzen duenik. Hain zuzen ere, egun, eta gizarte desegoki honen aurrez pertsona bakarra zurtz eta biluzik gertatzen da. Gizona, beste-ten itzalean gorde beharrean da, jendetzaren pean bilatzen da. Eta hau, gizona eta gizartearen arteko kontraesantaren ondorio dugu. Konsumozko gizarte honetako nolabaiteko «sozializazio» bat ekarri dugu. Pertsona talde eta estadistika soil bihurtu dakusagu. Baina lehen ikurmita batetan, sozializazio honek jainko sozialismoaren ekuzioa dugu. Zeren gizonen elkarreko una, toki eta moda konkretu batzuri lotua agertzen berizte horri politikoa eta sozial deriztat. Esan dugunez hondartzaren beste alderdi nabarmen eta bereiznarria «jendetza» da, eta hemendik datorriko hondartzari bere esangura politikoa.

Agian, hondartzako sozialismoa, balizko amets baten inuria dugu. Eta jakina, uda sasoiin, hondartzan lortzen den gizarte leuna eta epela, klaserik gabekoa, nequak zapuzten du. Izan ere, opor aldi eta bakantzetako egun ezietan ugari dira amodiak eta ondorioak urri.

Orain artekoak irakurri ondoren norbaitek pentsa dezake, hondartzak begintan hartu dudala. Ala fedele zezakeen norbaitek horrek okerrago zentsa. Jatorra, bidezkoa, zuzena, ongarria... hori gutzia eta gehiago deriztat hondartzari. Eta gainera nork utakuto du, gizon nekatareantz deskatza baten gorputz liraina eta haren bitxi gogoangarrien bista bezalako botikarik ez dela? Bakar bakarrrik, eta udaltzarenen mugan, hauxe esan nahi non irakurleari hasera haseratik: «Agian, udako eguzkiaren argitan itxura alaiago ikusi duzu Euskal Herria. Behar bada pentsatuz duzu Euskal Herria hondartzak bat dela, osatua eta penarik gabea. Baina aski duzu hondartzatik bi pausoz aldaratzea, Euskal Herriaren aurpegi gaizto eta egoera trizeaz jabetzeko. Agian erreallitate itzalean datza. Han... eguzkurik ez den tokian. Nahiz euskaldurok bakantzak har, Euskal Herriak ez du porrik».

LUIS HARANBURU-ALTUNA

# Oraison eta Monod elkarrizketan

Z. ARGIA honetanxe aipatu nuen Monod-en liburua orain dela zenbat hilabete («Le Hasard et la Nécessité» delakoa). Trinkoago da izan Nobel-Sarikide duen Jacob jainkuaeren «La Logique du Vivant»-liburua. Baina, ageri denez, Monod-enak ekarri du arabotsik haundiena, eta milaka saltzen ari da oraindik ere.

Marc Oraison psikiatra ezagunak liburuskat bat ateratu du aste hauetan: «Le Hasard et la Vie». Izen-purruak berak nabarmenkiro idarokitzen duenez, Monod-ik errepikatua nahi izan dio Oraison-ek. Apalik egina du, umiltasun txalagarrian, eta honek berak irakurgarriago egiten du liburua eta maitagarriago idazlea; apalik idatziagatik ere, Oraison-en arrazoiak ez bait dira bertan-behera «rtekoak».

Monod-en tesi nagusia —irakurlea oroitzen dakekenez— hau da: zoriak (zori = hasard, azar) sortu duela dena; eta gauzen gerrera azaltzeko ez dagoela bestealako hipotesirik onhartu beharrik. Biologiako eboluzioari dagokionez bezalakoa eboluzioari dagokionez biologikoa, hau dio frantses biologiarri apartak, mutazioa ZORIAK dakarrela; ea, ekarri ondoren, finkatu egiten dela betriko estrukura «mutazioa». Eta, hurrengo mutazio bat zori-ak berriro eman arte, bere horretan emendatuko dela, eta ugalduko, zelula edo bizidun berriak, balunez beaun beti ere bere burua ugaltzeko BEHARRAK eraginda. Eboluzioa ez da, Monod-en ustez, beaunez beaun ZEHAZKI KOPIATZEKO gaitasunearn, mutazioleak sartu duen etendura eta eskasieren ondorioa baizik. Den-dena, eta gizona horretara, ZORIAK ETA BEHARRAK sortu dukete itsu-itsuan.

Oraison-en ustez gizonaren karkoa ez da molekula bizidunen azterketa erakuts dezakeanikus deus. Azterketa horretzen balio gaizta saritzeko eman zitzaion Nobel-Saria Monod-ik; eta Oraison-ek ba da, eta bihotzest miresten du haeren jakinduria. Oraison ez da biologiarren mailan mintzo. Dударik gabe —dio— gizonaren ezagugarri bat da buru-muinaren kirio-sistimaren korapilotasun neurrigabea: biloika (miloika milioitan, beraz) zenbait behar bait dira gizonaren buruko zelulak.

Hau guztiz harrigarri izanik ere (eta zori hutsaren fruitu gisa, oso ki mirakulu da) ez du Oraison-ek uste gizonaren kaioa horretan bakarrik datzanik; edo, bestela esateko, guz buruz eta aztertzaileirik buruz psikiologiaren materialzoko oinarria zelula-ugaritasun horren bit-

dez agerturik ere, gizonaren karkoa eta benetako misterioa at daukete: «gizonak, bizidun denez, biologik at dagoen galdera bat dakar». Zertan? Oraison-ek ez du zalantzarik egiten: zientziatzko antropologia, gizonaren benetako ezaguerara, Freud-ek zabaldu du. Gizona zer den eta gizonak funtsean zer nahi duen, Freud-en psikanalisiari erakatsi dio, eta Freud gabe ez dago gizona zinez konprenituzerik.

Hots —dio Oraisonek— Freudengandik ikasi ditugun gauzetatik bat hauxe da: tratamendu psikologiko huts batek, alegia, elkarriketeta hots batek, psikanalisiaren harremanak elkarriketara pasituzierik edo kimika-laguntzarik gabe, egiazko LEHERTZAPEN bat sortzen duela erriaren «transfert» aren mementoan. Bene-benetan: eriak leher egiten du barne-elkariketen minbera, bere egia inkontzientzeara uleritzean. Nola azal ditek leherztatzen ohi diren. Nola azal ditek leherztatzen ohi diren... «Comment du non-chimique —galdetzen du Oraisonek— provoque les indiscutables réactions morphochimiques intracellulaires qui vont inscrire... les expériences véales et leur résultat?». Nola azal, alegia, kimikatik at jarraitzen eta obratzen den sendaketa batek, kimika-ondorio molekular horiek zelulen artara obratzea? Honek berak, eta beste zoi batzuek, biltzuzten dituzte gaur zientziatzko gizonak ENERGIATZ eta MATERIATZ gain ere, et ahorietara ezin bildua, beste hirugarren osakin funtsezko bat onhartzena: «INFORMATZIOA». Alegia: taxupide eta antolakeraz hutsa den zerbaitek. Hein batez, etsenpulu bat ematekotan, eraikuntza-obra bati buruz, jeneruaren eta arkitektoaren proiektoko eta planoak direna.

Hau ez da dena, halere, Oraison-en ustez; ezta funtsezkoena ere. Oraison-ek gizona barnetik begiratzeko nahi du, nitasunaren alderdiatik; eta, beriz ere, Freud-en erakaskintzaz baliaturik egiten du. Gizonaren barne-kontradizio batzuk aipatzen ditu, psikanalisi zertsu den dakitenentzako ezagunak. Eta, esate baterako, Lacan hitzez hitz kopiatuz, gizonaren nahikundeekin gertatzen dena gogoratzen du: «gizonaren desira edo nahikundeak beti egoten dela desiratzan, lortzen eta obratzen duen guziaz bestalderra eta kanpo». Ez dugu inolaz asmatzen. Beti zen «besterik» bilatzeko genduen; beti esan dezakegu: «ez da hau nik bilatzen nuen». Eta Unamuno-k beste bidetik biabiaturik esan bazuen: «el hombre es un animal enfermo»; Orai-

sonek, Freud, Lacan, Hesnard, Cooper, eta abar aztertu ondoren, beste hau idatzi du: «C'est en ce sens que l'on peut dire, sous forme d'un apparent paradoxe, que tout homme est «névrosé»», gizonak oro direla nevroitikoak. Gizonaren desegokitasuna, Freud-ek frogatu duenez, sortzekoa da benetan, araz beretako eta oldekoak. Eta Oraisonek galdetzen: «Zergatik berezko?».

Gizonaren muinaren muina, egiazki odolaren odola, sofrikarioa da, pairua, oinazea. Eta, alderantziz, gizardaren mitorik indartsuena eta iraukerrenea, «beste mundu bat»-mistizea: trazendentzian (= zeruan hil ondoren, hindutari nirvanan gelsalduz); edo imanentzian (= geroan erreboluzio guztiko baten bige, «Urre-Haro»-ko antzinatze garbi ederrean, drogaren ametsetan). Denok ginake gauza bat aitortzeko gertu: mundu hau, bere horretan, ia-ia jasan-ezina iruditzen zaigula oinaze-kopuruz, doilkeriaz eta aburdutasunez. Hots —dio Oraisonek— hori aitortu beharra «eskan-dalo guzaki» da; eta Biologiarren maila gutxiak galditzen ditu. Eskandalo hau ez du inolaz molekula bizidunen jakintzak argituko.

Gizonaren «pultsio»-rik sakonena —Freud-ek aurkitua— «beriztatze-ko pultsioa» da. Alegia: gertaldi atsegina tema bihurtzea helburu gisa, eta behin eta beriz eta hil arte beriztatzea beharra. Beriztatzea-behar horren giltzarria, ordea, denboraren isuri etengabeak eta heriotzarantz goazen ikaspen izaketa inkontzientzek sortua da: «Heriotzaren zorbatio, heriotzaren ukara... Bizia isuriz joango ez balitz bezala bizitzeko eta izateko beharra. Hitzak kontuz neurtuz, hau esan ditek zehazki: denbora geldiarazteko beharrak eragiten gaitula; geldiarazpen hori, noski, beriz kontradizio huts eta oiki ezinezko izanagatik». Gizonaren larritadura eta ezinegona, hortaz, ORKURAZKOAK dira, IZATEZKOAK; ez inolaz ere politikoa.

Zer da, beraz, «zori» hitza (hasard, azar)? Ez ote da sustraian, galdetzen du Oraisonek, Jainkoari ematen zaien izen berria? Zeren-eta uleretzen ez duguna, misterio osoak eta sakonenak, zientziatik at uzten dugun guzia, «zori» ilun horren lepora botatzen baitugu, eta segidan eskuak garbitzen.

Eta galdera hauek, eta beste antz, aldean utziz bukatzen da liburua. Eta, harra beti ari, Monod-en aitortu hau entzuten bide dugu gure barruan gailen: «La vie est appaure sur la terre: quelle était avant l'événement la probabilité qu'il en fut ainsi...? (Elle était quasi nulle...».)

Mirari hutsaen gaude, beraz; ez dago zalantzarik.

Baina, honetaz gero, irakurleak berak bi liburur horiek irakurtzea luke onena. Ez litzaioke damutuko, nik uste.

LARRESORO



Zuzendaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxiнок argitaratua (Kale Nagusia, 50-1. Burlada-Pamplona).  
Domostian: Okendo, 22  
Tel. 42.66.66

**ARPIDE SARIA:**  
Berruan 250 pezeta  
Korreo batasunetako errietan 300 pezeta  
Atzerrietako bezetan 320 pezeta  
Aidez Aurrez galdetu  
Salmetan (alie bakoitzea) 6 pezeta